

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARTZINIEGAKO UDALA

Behin betiko onestea udal jabari publikoaren erabilera pribatiboagatiko edo aprobetxamendu bereziagatiko tasak arautzen dituen ordenantzaren eranskinaren aldaketa

Udal honek, 2021eko urriaren 14ko ohiko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea udal jabari publikoaren erabilera pribatiboagatiko edo aprobetxamendu bereziagatiko tasak arautzen dituen ordenantzaren eranskineko c) epigrafearen (udal bide publikoetako lurrazalean, lurpean eta airean egiteko beste edozein erabilera pribatu edo aprobetxamendu berezi) 1. apartatua aldatzeari.

Ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu 2021eko azaroaren 3an 125. zenbakiko ALHAOn argitaratutako iragarkiaren bidez jendaurrean jarri ostean; hortaz, behin betiko onetsita geratzen da, honako testu honekin:

UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBOAGATIKO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Udalak tasak ezarri eta eskatuko ditu udal jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik eta aprobetxamendu bereziagatik, ordenantza honetan ezarritako arauei jarraituz eta Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauak ezarritakoarekin bat etorritik. Ezarri beharreko tarifak jasotzen dituen eranskina ere ordenantzaren osagaia da.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatuko da.

II. ZERGA EGITATEA

3. artikulua

Udal jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia da zerga egitatea.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua

1. Subjektu pasiboak eta, beraz, zergadunak dira Arabako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorreko 35. artikulua 3. apartatuan aipatzen diren erakundeak eta pertsona fisiko eta juridikoak, baldin eta era berezian gozatu, erabili edo aprobetxatzen badute tokiko jabari publikoa beren onerako.

2. Ibilgailuak edo gurdiak espaloietan zehar sartzeko erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia dela eta ordaindu beharreko tasa eta halako sarbideak eraiki, mantendu, aldatu edo kentzeagatik ordaindu beharreko tasa direla eta, zergadunaren ordezkoko izango dira ibilgailuak sartzeko diren finken eta lokalen jabeak; ordezkoko horiek onuradunei ordainarazi ahal izango dizkiete kuotak, bidezko kasuetan.

3. Administrazio publikoek, autonomia erkidegoek eta toki erakundeek ez dute tasarik ordaindu beharko udalerriko jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik ez aprobetxamendu bereziagatik, zuzenean ustiatzen dituzten komunikazio zerbitzu publikoei atxikitako aprobetxamenduak edo herritarren segurtasunaren edo defentsa nazionalaren zuzeneko interesen aprobetxamenduak badira.

5. artikulua

Lizentzien titularrek ordaindu beharko dituzte tasak edo, bestela, aprobetxamenduaren onura lortzen dutenek.

IV. SALBUESPENAK, MURRIZKETAK ETA HOBARIAK

6. artikulua

Salbuespenak eta bestelako zerga onurak aplikatzekoak diren xedapen orokorren arabera emango dira.

V. ZERGA OINARRIA

7. artikulua

Jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia gertatzen den unitate bakoitza izango da zerga oinarria, eranskinean adierazitakoaren arabera.

VI. KUOTA

8. artikulua

1. Zerga kuota izango da, eranskinean ezartzen denaren arabera, zerga oinarriari tarifa bat aplikatuz ateratzen dena, ezarritako kopuru finko bat, edo bi prozedura horiek batera aplikatuz ateratzen dena.

2. Erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia dela eta udal jabari publikoa apurtu edo hondatzen bada, dagokion tasaz gain, egin beharreko berreraikitze edo konponketa gas-tuen kostua osorik itzuli beharko du onuradunak, baita hari dagokion zenbatekoa aldeztatik gordailutu ere.

Kalteak konponezinak badira, udalak kalte ordaina jasoko du: suntsitutako ondasunen edo hondatutako ondasunei egindako kalteen zenbatekoa.

Udalak ezin izango ditu barkatu apartatu honetan aipatzen diren kalte ordainak eta itzuli beharreko kopuruak, ez osorik, ez zati bat.

VII. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

9. artikulua

1. Zerga egitatearen izaeraren arabera, tokiko jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasa une hauetan sortuko da: erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hasten denean, eta kasu horretan, horri dagokion zenbatekoaren zati bat edo guztirakoa aldeztatik gordailutzeko eska daiteke; jarduera edo espedientea abiarazten duen eskabidea aurkezten denean, eta jarduera ez da gauzatuko edo espedientea ez da izapidetuko dagokiona ordaindu arte.

2. Tasaren izaera materiala dela eta tasa aldiari sortu behar bada, urte bakoitzaren urtarrilaren 1ean sortuko da eta zergaldiak urte naturala hartuko du, salbu eta erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hasten edo amaitzen bada; kasu horietan, zergaldia horri egokitu zaio, eta dagokion hainbanaketa egingo da kuotan, eranskinean ezarritako baldintzetan.

3. Subjektu pasiboari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik jabari publikoaren erabilerarako edo aprobetxamendurako eskubidea ematen edo betetzen ez bada, bidezko kopurua itzuli beharko da.

VIII. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

10. artikulua

Kontzeptu bakoitzarengatik egin beharreko likidazioa udal administrazioak egingo du, eta likidatutako kuota dirutan ordaindu beharko da, ordainarazpen bakoitzerako eranskinean dauden arauen arabera.

IX. TASEN KUDEAKETA

11. artikulua

Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak xedatutakoa aplikatuko da ordenantza honek araututako zergen likidazioari, bilketari eta ikuskaritzari dagokion guztian eta egoera bakoitzaren gaineko zigorrak zehazteari dagokion guztian.

X. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau eta haren eranskina ALHAOn argitaratzen diren egunean jarriko dira indarrean, eta indarrean jarraituko dute aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

ERANSKINAA) EPIGRAFEA: IBILGAILUAK ESPALOIETATIK FINKETAN SARTZEA
ETA BIDE PUBLIKOAN APARKALEKUA ERRESERBATZEA

1. Ibilgailuak espaloietatik sartzea:

KONTZEPTUA	ZENBATEKOA EURO TAN
Ibilgailua igarotzeagatik	24,50 €/urte

Lokalean ibilgailu bat baino gehiago sartzen bada, urteko zenbatekoa 3,00 euro handituko da ibilgailu bakoitzeko.

2. Aparkalekua erreserbatzea:

a. Taxi geralekuak.

TAXI GERALEKUETAN APARKALEKUAK ERRESERBATZEA	ZENBATEKOA EURO TAN
Ibilgailu bakoitzeko	55,00 €/urte

b. Bidaiarien lineak.

BIDAIARIEN LINEETAN APARKALEKUAK ERRESERBATZEA	ZENBATEKOA EURO TAN
Metro lineal bakoitzeko	20,00 €/urte

c. Aparkalekuak erreserbatzea, egunean 4 orduz, oro har.

APARKALEKUA EGUNEAN 4 ORDUZ ERRESERBATZEA	ZENBATEKOA EURO TAN
Metro lineal bakoitzeko	17,00 €/urte

Tarifak aplikatzeko arauak.

Pasabideak eta aparkaleku erreserbak instalatu, zaindu, berritu eta kentzeko nahiz horiek seinaleztatzeko gastuak eskatzaileek ordaindu beharko dituzte.

Ibilgailuak espaloietatik sartzen direnean, igarobide kopuruaren eta horiek erabiltzen dituzten ibilgailu kopuruaren arabera izango da tasa; sparkalekuaren erreserbaren kasuan, erreserbaren luzeraren arabera, taxilarien kasuan izan ezik, ibilgailu bakoitzeko prezio publikoa ordainduko baitute.

Lokal batek bi igarobide edo gehiago baditu, lehenengoak dagokion tarifaren arabera ordainduko du zerga, eta gainerakoek dagokion tarifaren ehuneko 50.

B) EPIGRAFEA: HERRI AZOKETAKO ETA JAIETAKO POSTUAK

1. Zabuak, gailu hegalaria, kalesitak, zaldiko jokoak, talka autoak, zirkuak, tiro etxolak, txurro dendak eta abar jartzeko lurak okupatzeko lizentziak. Metro karratu edo zatikiko:

METRO KARRATU EDO ZATIKIKO	ZENBATEKOA EUROTAN
100 metro koadro baino gehiago	300,50 € hileko edo zatikiko
50 m2 baino gehiago eta 100 m2 baino gutxiago	211,00 € hileko edo zatikiko
50 m2 baino gutxiago	91,00 € hileko edo zatikiko

2. Argazkilariak eta beste ibiltari batzuk:

METRO KARRATU EDO ZATIKIKO	ZENBATEKOA EUROTAN
Metro karratu edo zatikiko	4,00 € m2/eguneko

Tarifak aplikatzeko arauak.

Azoka esparruetako lursailak esleitzeko enkante sistema erabiltzen bada, enkantea udalak kasu bakoitzean erabakitzen dituen oinarriari eta baldintzei jarraituz egingo da.

C) EPIGRAFEA: UDAL BIDE PUBLIKOETAKO LURRAZALEAN, LURPEAN ETA AIREAN EGITEKO BESTE EDOZEIN ERABILERA PRIBATU EDO APROBETXAMENDU BEREZI

1. Mahaiak, mahai hankabakarrak, aulkiak, zoladurak, loreontziak, eguzkitakoak eta antzekoak:

Instalazio tarifak, alde aurreko baimenarekin, honako hauek izango dira:

Mahai batek eta lau aulkik osaturiko multzo bakoitzeko: 15 euro urtean.

Mahai txiki batek eta aulki garai batek osaturiko multzo bakoitzeko: 10 euro urtean.

Eguzkitako bakoitzeko: 1 euro hilean.

Oinezkoentzako zonetan instalatzeko eskaerei erantzuteko, kontuan hartuko da terraza jartzen den kale zatiak espaloietako bat libre izatea pertsonak ibiltzeko, finka baterako sarbidea ez oztopatzea eta inguruko jarduerekin bateragarria izatea.

2. Obra hondakinak edo materialak jasotzeko edukiontzia:

	EUROAK
Metro karratu edo zatikiko eta 15 egun edo zatikiko	7,00

3. Udalaren bide publikoen lurrazalaren, lurpearen edo aireko espazioaren aprobetxamendu berezia, hornidura zerbitzuen enpresa ustiatzaileen alde.

Ordaintzeko betebeharra dutenak hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresak direnean eta hornidura zerbitzu horrek herritar guztiei edo haietako askori eragiten dionean, tasaren zenbatekoa, inongo salbuespenik gabe, izango da enpresa horiek urtean udalerrian eskuratzen dituzten fakturazioko diru sarrera gordinen ehuneko 1,75.

Tarifa aplikatzeko arauak.

Aurrekoetan jasotzen ez diren kasuetan, udalak ezarriko du prezioaren zenbatekoa, kontuan hartuz zein ezaugarri eta berezitasun duten, eta inola ere ezingo da izan epigrafe honen 1. zenbakian ezarritako tarifak aplikatuz legokiokeena baino txikiagoa.

Artziniega, 2021eko abenduaren 20a

Alkatea

JOSEBA VIVANCO RETES